

DBH 2 Plastika 2020-2021 ikasturtea	
1. ebaluazioa	Ehunekoak
PROIEKTUA	% 80
1. Koadroak aztertu eta eraldatzearen proiektua: margolari ospetsuei, euren koadroei eta ikusizko baliabideen (konposaketa, kolorea eta interesguneak) erabilerari buruzko informazioa bilatu, aukeratu eta erregistratzea. Informazioa ulertu, interpretatu eta ebaluatzea. Landutako informazioan oinarrituta norberari edo inguruneari buruz ikusizko proposamenak planifikatzea.	% 30
2. Aurrez planifikatutako sormen prozesua gauzatzea, norberari edo inguruneari buruz irudien bitartez iritzia emanaz ikusizko baliabideak aplikatuz, sormen prozesuan zehar egindakoak ebaluatuz, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez.	% 30
3. TELE-LAURO: ikus-entzunezko alde teknikoa ikasi. Gidoia edo story-board-a prestatu, plano egokiak erabaki, bideo kameraren erabilera, argitasuna eta edizio digitala.	% 15
4. Norberak bere erantzukizunak onartzea, lanerako urratsak eta epeak errespetatuz, baliabideak eta materialak era egokian erabiliz eta pertsonen eta iritzi desberdinen arteko aniztasunak dakarren aberastasuna aintzat hartuz.	% 25
ZEHARKAKO GAITASUNAK	% 20
Ikasten ikasteko kompetentzia: informazioa bilatu, aukeratu eta erregistratzea zenbait iturri erabiliz, informazio hau interpretatuz eta ebaluatuz gure ikusizko proposamenak planifikatzeko.	% 50
Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia, eta teknologia digital eta mediatikoa erabiltzeko kompetentzia: arte hizkuntzaren oinarrizko kodeak erabiltzea, ikusizko proposamenak diseinatu eta planifikatzean informazioa kudeatuz eta produkzio digitalak sortuz modu oso eta orekatuan irudien bitartez komunikatzeko.	% 50